

# **PENTSAMENDU POLITIKOAREN HISTORIA**

**IRAKASLEA: J. CASQUETE**

## **SARRERA:**

### **Politikaren Definizioa;**

Pertsonen prozesu bat bezala definitzen da, hala nola giza taldeen prozesua. Prozesu bat izanik ez da zerbait estatikoa, baizik eta mugimendua sortzen duen zerbait da. Politikak abian jartzeko, giza multzoan dauden iritziak partekatzen dituzte erabaki kolektiboa bideratzeko helburuaekin, prozesu politiko bat sortuz.

### **Pentsamendu Politikoaren Historia;**

Pentsamendu politikoaren historian bi adierazgarri antzeman ditzakegu. Batetik ikuspuntu Eurozentrismo nabaritzen dela, azterketa historikoa mendebaldean kokatuz. Bestetik esan beharra dago emakumeen pentsamendu politikoak ez dela aintzat hartzen.

Autoreen gaineko irakurketa bi modutan egin daiteke;

- Ikuspegi Textualista; Testu baten gaineko interpretazioa da (Adibidez Politeia edo eta Printzea). Testuaren gaineko azterketa korrante (liberalismoa) eta gai (justizia) baten inguruan egiten dira.
- Ikuspegi Kontextualista; Inguru konomikoa, soziala edo eta kulturala kontutan hartzen dira.


## **Ateniar Demokrazia Eredua (Demokrazia Eredua)**

### **Sarrera**

Greziar testuingurua aztertu beharra dago. Grezian Hiri-estatu independenteak zeuden indarrean, ekonomikoki autarkikoan eta politikoki independentean izanik. Gizarte egiturari dagokionez hiru gizarte talde nagusi dauzkagu. piramidearen oinarritzat Esklaboak zeuden, politikan parte hartzea debekatuta zeukatenak. Metekoak, hala nola atzerritar merkatariak, ez zeukaten politikan parte hartzeko aukerarik. Politikan eragile bakarrak hiritarrak ziren.

- **ESKLABUAK:** Instituzio bezala XIX. mendera arte iraungo du esklabutzak, menderapen hura modu natural batean emanik (Azpikoen gaineko menderakuntza naturala). Hauek oinarritzko jardura ekonomikoetaz arduratzen ziren (nekazaritza, adibidez). Esklabuen inguruko bi interpretazio egon dira historikoki. Lehenak esklabutzaren erabilera gero garapen kulturala egiteko aukera ematen duela baieztatzen du, oinarri ekonomiko bat eskeintzen duelako. Bigarrenak ordea. aurrekoa deuseztatuz, kultura garapena ez duela esklabutzak eskeintzen argudiatzen du.
- **METEKOAK;** Atzerritar merkatariak ziren, naturalizazio prozesu baten falta argia zutena (Hiritartzea) eta hiritar bihurtzeko asanbladaren onarpena behar zutenak. Beraien parte hartze politikan debekatuta zegoen, baina hiria defendatzeko gaitasuna garatu zezaketen. Beraien jardura ekonomikoa guztiz askea zen.
- **HIRITARRAK;** Prozesu politikoaren subjektuak dira (gaitasun eksklusiboa) eta hiria defendatzeko eskubidea bermatzen zuten. Grezian lehia politikoa handia zen, izan ere bazekiten beraien erabaki politikoen garrantzia. Hiritartasun titulua jaiotzez lortzen zen. Eskubide kontuetan berdintasuna bermatzen zen grezian, baina kontu ekonomikoetan ezberdintasuna handia zen. Emakumearen kasuan, ez da gai izango ez politika ez gerra burutzeko.

### **Erakunde Politikoak**



## Ideal Politikoak

Instituzioen funtzionamendua gauzatzeko beharrezkoa da teoria politikoaren garapena. Ideal Politiko Greziarrak;

- **Berdintasun Politikoa;** Berdintasuna sistematikoki bermatu behar den zerbait da, beti ere gizarte egituraketaren barnean. Berdintasun hura hiru kontzeptuetan laburbiltzen da; ISONOMIA ( Berdintasun Legala), ISEGORIA (Berdintasun Politikoa) eta ISOCRATIA (Botere Politiko berdina).
- **Herri Gobernu;** Hiritarren gainean eroriko da subiranotasun titularitate guztiak (erabaki politikoak hartzeko propietatea).
- **Askatasuna;** Zentzu bikoitza dauka. Batetik norbanakoaren askatasuna, eta bestetik kolektiboaren askatasuna.

## **Ateniar demokraziaren Abantailak/Desabantailak (denbora kontutan izanik)**

**Abantailak;** Erabakiak konsensuaren barnean hartzen dira / Unean uneko planteamenduak defendatzen dira.

**Desabantailak;** Denbora dela eta ez dira erabakiak benetako konsensuaren barnean hartzen / Erabakiak oso motel hartzen dira

# **PLATONEN FILOSOFIA POLITIKOA, “Politeia” (“Errepublika”) liburuan onarrituta**

## **Bibliografia**

Aterriar familia aristokrata batean jaio zen, Sokratesen diszipulua izanda bere filosofiaren eragina jasoko du. Hainbat lan filosofiko gauzatuko ditu bere bizitza osoan, politika nahiz lege garapenak nagusituz. Platonen pentsamendua, pentsamendu filosofikoa baina gehiago izango da, proiektu ideal baten garapena burutuko duelako (Idealismoa bezala ezagututa, errealitatearen markotik aldentuz).

## **BERTUTEA EZAGUTZA GISA**

Platonen ustetan, pentsamendu intelektual zuzen baten bidez bizitza gorena izatean posible ikusiko du, Estatu eta Gizabanakoaren arteko harremana eraikiz. Intelektualismoaren goraiapamen honetan, legitimitate iturri gisa aurkeztuko digu jakintasuna. Legitimazio politikoa hortaz ezagutza mailatik etorriko da, jakintsuei gobernabilitatea eskeiniz. Planteamendu hauen bidez atener demokrazia parte hartzaileen oinarrien aurka joko du, izan ere garaiko demokrazian parte hartze politikoa ez zegoen ezagutza mailarekin lotuta (hiritartasunaren kontzeptuarekin ordea).

**Atener demokraziaren aurkako kritika** bortitza plazaratuko du Platonek, izan ere bere legitimitate iturri nagusia jakintza intelektualetik etorriko da. Platonen pentsamendaren arabera, ez da bideragarria hiritar guztien parte hartze politikoa, mundu guztiak ez da gai erabaki politiko zuzenak bideratzeko. Hiritartasunaren legitimazioak bideragabetasun politikoa eragiten du, iritzi publikoaren ez-gaitasuna ondorio nabari gisa izanik demokrazia parte hartzailean.

## **Lan Banaketaren kontzeptua Platonen Teorian**

Platonek, bere idealismoan lan banaketaren beharra antzemango du gizartearen espezializazioa eragiten. Modu honetan, gizabanako bakoitzak bere funtzio zehatza esleitu beharko du proiektu politiko honetan. Norbanakoaren funtzioa heziketa eta bertutearen bidez definitua izango da. Bakoitzak gizartean lanbidea BERTUTEA (Naturatik eratorrita) eta HEZIKETA(gizabanakoaren prestakuntza) kontutan izanda banatuta izango da, lanbide banaketan natura eta ikasketa prozesuaren arabera erabakiz. Hemen ikusiko da Platonen Bertutean filosofo graziarrak erabilitako aitzuloaren metafora, izan ere hiru multzoetan banatuko ditu gizabanako bakoitzaren funtzioak. Naturatik eratorritako bertute bakoitzaren arabera, mailakatze sozial bat planteatuko du Platonek, norbanakoaren lana hiru multzo ezberdinetan banatuz;

1.Maila: Errege filosofoaren irudia. Goi mailako agintaria izango da jakintza nahiz ezagutza maila bikaina bermatuz, legitimazio maila gorena izanik (ezagutzatik eratorria). Bere baitan eroriko dira erabaki politiko guztiak.

2.Maila: Gudariak eta Gerlariak. Borroka egiteko prestakuntza nahiz naturalki eratorriko gaitasun fisikoa bermatuz. Beraien ekintza errege filosofoaren baitan egongo da.

2.Maila; Langileak. Beraien heziketa mota nahiz bertutearen arabera lan fisikoak egiteko lanbideak esleituko zaie.

### **Justizia Platonentzat**

Platonen justizia bakoitzari egokitzen zaiona ematea izango da, gizartean daukan kokapena kontutan izanik ere. Horretarako 2 bide definituko dizkigu: Lehen bidea **Komunismoaren Teoria** izango da, bide negatibo eta kaltegarri bezala aurkeztuz. Bide honen bidez, orden justu bat lortzeko helburuarekin, errege filosofoari nahiz soldaduei beraien jabego pribatua ezabatuko zaie, langileen propietatea bermatuz. Familia jabetza bezala ezabatua izango da, botere nahiz aberastasun jatorria bezala ulertuta. Bigarren bidean **Heziketa** planteatuko du Platonek, bide egokiena izanik. Esku pribatuetatik aldenduz, Platonen ustetan beharrezkoa da norbanakoaren bertutearen araberako hezkuntza sistema. Musika eta soinketa oinarritzko ikasketak bezala hartuko ditu Platonek, goi mailako ikasketak Matematika, Astronomia nahiz Fisika egonik (Bertutearen araberako mailakatzea).

### **Platonen Zuzenbidea**

Bere zahartzaroan konturatuko da bere teoriaren idealizazio mailaz, eta horri aurre egiteko zuzenbidearen definizioari ekingo dio. Azken fase honetan, komunismo primitiboaren abolizioa proposatuko du, goi filosofoaren nahiz gerlarien jabego pribatua mantenduz. Idealizazio maila handiaz larrituta, jabego pribatua mgatzearen alde agertuko da.

### **Askatasunaren auzia**

Honi heltzeko, beharrezkoa zaigu aipatzea Platonek aintzat eduki zituela “Kibutz” delakoak, Aintzinako Greziako gizarte asanbleario komunalak zirenak, non banako-taldearen arteko talka eman ohi den (banakoak taldearen erabakia errespetatu eta borondate pertsonalista alboratu behar duen heinean).

Hala, ba al dago ingeniari-tza sozial posiblerik (hitz bakar-rean: eraiki al daiteke gizarterik) talka hori sai-hetsi eta askatasun-er-a heltzeko? Helburu hori posible egikaritzeko, Platonek **heziketak** joka dezakeen rol garrantzitsu-a azpimarratzen du.

Heziketaren pisua zera-n datza: soilik honek balia dezake norbanako bakoitzak jasotako formakuntzaren arab-erako jarduna gauzatzea, eta hau da ordena justurako oinarritzko premisa. Platonen ustez, heziketaren zeregina ezin liteke erori esku pribatuetan, baizik eta komuna izan eta den-eren eskura egon behar da. Jaiotzatik zehazten da norberaren bizitzako rol soziala, eta, hartan trebatze alder-a, Platonek bi heziketa mota bereizten ditu: Oinarritzkoa (20 urte bete bitartekoa, non ikasketen pisua musika eta gimnasiak daukaten) eta goi-mailakoa (20-35 urte bitartekoa, matematika, filosofia eta astronomia gehien bat). Platonek eskola propio bat eratu zuen, “**akademia**” izenekoa.

“Legeak” lanean, zuzenbidea lantzen du, eta “Errepublik-a” obraren errebisioa eginda, jabetza pribatua onartzen du.

## ARISTOTELES (K.a. 384-322), “Politika” obra

Estagiran jaio zenez, Atenasen *metekoa* (atzeritarra) izan zen bizi osoan zehar. Platonen ikaslea izan zen 20 urtez. Bere eskola propioa (lizeoa) sortu zuen, atzerrian 12 urte igaro ostean. Lanen artean (politikari, justiziari, legeei, Atenaseko konstituzioari... buruzkoak), “Politika” liburua gailentzen. Dauzkan 8 tomoetan zehar, Platonen eragina nabarmenduz ala ahulduz doa. Honen egiturari dagokionean, zortzi atalak ez zituen Aristotelesek bukatu, eta egungo itzulpenetara gai-orden eta eduki oso ezberdinak iritsi dira.

### Legearen gailentasuna

Aristotelesen planteamendu politikoan, azpimarratzekoa da legearen gailentasuna. Izan ere, zuzenbidearen arabeko gobernu batek, Aristotelesen ustetan, erregimen juridiko batean oinarritu behar du (arau orokorrekin) eta herritarren interesak barnebidu behar ditu, harekiko obedientzia borondatzekoa izan dadin. Hurrengo aiputik tiraka, sistema legitimoaren nolakotasunean murgildutako paradigma politikoa topa dezakegu:

*“Legeak berdinak izan behar, berdinak direnentzat”*

### Ideal etikoa

Honen helburua hiriaren barnean bizimodu zoriontsua gailentzea litzateke. Hartarako beharrezkoa ikusten du gizakia “zoon politikon” (“animalia politiko”) gisa identifikatzea, berezko joera politikoekin. Izan ere, Aristotelesengan jada topa dezakegu gerora gizarte mailan planteatuko den **natura vs hitzarmenaren** dikotomia: Gizakia naturak aurkeztutako testuinguru sozialaren aurrean topatzen da, berezko zaizkion joera politikoei hitzarmenera gidatzen duten arren.

### Gobernu formak

Irizpideak:

- Gobernari kopurua
- Degenerazio maila: Ongizate komuna edo propioaren bila abiatzea

Formak:

Gobernari kopurua	Gobernu forma zuzena	Gobernu forma okertua	Zer egiten dute txarto gobernariak?	Zergatik egiten dute txarto, baina?
Pertsona bakarra	<b>Monarkia</b> Hau da gobernu forma gorena erregeak politikoko ideala antzeratzen badu	<b>Tirania</b>	Gobernariak lur eta etxaldez jabetzen dira	Ohore eta handinahia izaten dira gaiztotzearen bultzagarriak
Pertsona anitz	<b>Aristokrazia</b> Etim. hoberenen boterea	<b>Oligarkia</b> Gutxi batzuen boterea	Agintea ondasunen jabetzan dauka oinarria, agintariak aberatsak direlarik	Diruzaleak, agintez baliatzen dira
Herritar guztiak	<b>Demokrazia</b>	<b>Demagogia</b> Hau da forma okertuen artean hoberena, askatasuna bermatua geratzen delako	Ez daude gobernu lanetarako prest	Ezjakinak lirateke



Bada, sei gobernu-forma hauetan biolentziaren erabilera normalizatua sustatu izan da, arma eta bestelako iruditegien bidez, demokraziaren forman izan ezik.

### **Estatu erreala**

Indarrean jarri daitekeen erregimen formarik egokiena demokrazia (moderatua) da, zeinaren oinarri soziala klase ertain bat litzatekeen. Bada, klase ertaina kalitate eta kantitatea hobekien bateratzen dituen multzo soziala da, hain zuzen ere (Aristoteles klase ertainaren apologista gisa). Haren esanetan, hauek nagusikeriak ez-baian jartzen dituzte, baita txiroen iraultza-saiakerak arbuiatzen ere.

Aristotelaren iritziz, iraultzak gabezia erlatibo batez jabetzen direnek pizten dituzte. Hots, berdinak izanda, gutxiago dutela uste eta berdinak izatera (eta hortaz, nagusiak) iritsi nahi dutenak.

Subjektuei dagokienez, hiritarrak demokraziaren gidariak dira, asanblada eta tribunaletako kide diren heinean. Esklaboak aldiz, jabetza-bizidunak dira hiritarrentzat. Ekimen praktikoetarako erabilgarriak dira, hiritarren aisialdia bermatzeko aproposak. Bada, esklaboa esklabo da naturaz, bere gorputza lan materialak egiteko egokituta duen heinean. Hain zuzen ere, azken hauen eta emakumeen artean bada harreman natural bat: biak ala biak dira arrazoia hautemateko gai, baina ez erabiltzeko. Esklaboaren kasuan, ez da deliberatzeko gai, emakumeari segurtasunari falta zaion bitartean. Haurren kasuan, inperfekzioa da hauen berezko akatsa: Hona hemen Aristotelesek egiten duen gizonaren politikaren elitizazioa.

### **Berdintasuna (edo ezberdintasuna)**

Pare bat pasarte:

*“La igualdad parece de derecho común, y sin duda lo es, no para todos sin embargo, sino sólo entre iguales”.*

*“Si es en el orden físico perjudicial dar alimento igual y vestidos iguales a hombres de constitución y estatura diferentes, la analogía no es menos patente cuando se trata de los derechos políticos; y a la inversa, la desigualdad no es menos irracionalidad”.*

## **NICCOLO MACHIAVELLI (1469-1527), “Printzea” saiakera**

Florentziar diplomatiko hau XV. mendeko Europan bizi izan zen, Errenazimendu garaian. Hartara, Italia erreinu askotan zegoen banatuta, Espainia jada unifikatuta zegoen bitartean.

Garai hartako baldintzetara egokitu beharrean, porrot egin zuten printze florentziar, italiar zein europarrek akats bera egin zuten: zirkunstantzia historiko horiek exijitzen zieten malgutasuna ez zuten eduki. “Printzea” obran egitate hau isladatzen da: Printzearen ezinbesteko malgutasunaren beharra orotariko egoeren aurrean. 3 urtez egon zen debekatuta obra hau.

Hala, filosofiari uko egin eta historia zein esperientzia pertsonala baliatu zituen Makiavelok jakintza-iturri gisa.

### **Printzearen egitura: I-XI. atalak - Printzerri motak**

Estatu-eredu gisa errepublikak eta printzerriak bereizten dituen arren, errepublikak alboratu eta printzerrietan jartzen du arreta osoa Makiavelok.

- Printzerrian, “eredugarriak” eta “berriak” bereizten ditu.
- Berrien artean, “mixtoak” eta “guztiz berriak”.
- Guztiz berriak direnen artean, badira printzearen arma eta “virtúari” esker zein beste printze baten arma eta aberastasun zein zorte-onari esker egikaritutakoak.

Azken hauen artean, lehenak Printzearentzat ohorea eta gobernatuentzat segurtasuna suposatzen du.

### **Printzearen egitura: XII-XIV. atalak - Estatuaren “autonomia”**

Atal hauetan, bai Estatuaren bai honen autonomiaren egikaritze-prozesuan ejertzitoak duen rol eta pisua adierazten saiatzen da Makiavelo (Ikus “Arkulariaren metafora” –E Gelan-; zeinak, iritsiko ez dela jakin arren, helburua baino haratago jaurtitzen duen gezia, hasiera batean esperotakoa baino urrunago iristeko).

Aldez aurretik jada aipatutakoa nabari daiteke atal hauetan: Makiavelok “Printzean” ez du bereizketa normatiborik egiten, tendentzia errealistak jarraitzen baititu.

### **Printzearen egitura: XV-XXIII. atalak - Nola jokatu behar du Printzeak menekoekiko?**

Boterearekiko duen ikuspegi metodologikoa aurkakotasun dualista batean laburbildu daiteke: idealismoa vs errealismoa. Haren ustez, gauza onuragarrien ondorioetara iristeko, errealitatean topa dezakegun egiaren bila abiatu behar da.

*“Izan ere, hain da ezberdina egiten dena eta egin behar litzatekeena.”*

Hala, egin behar litzatekenerantz abiatzeak askotan hondamendia dakarkio norberari.

Makiavelismoa: Estatu boterearen mantenua defenditzen duen doktrina politikoari jarraiki; azkartasunez, edonon zein edonorekin, eta “eskrupulo” gabe jokatzeko era.

Printzearen kasuan, onuragarria izan liteke bai maitatua bai gorrotatua izatea. Edozein kasutan, inmoralitatea baliabide bat da, moral idealenaren bidez jokatuta ere ordaina jasoko ez bada. Botere-teknikaren inguruan, Makiavelok erailketa justifikatzen du, betiere arrazoirik balego eta berarekiko (Printzearekiko, boterearekiko) gorrotorik sortuko ez balu. Izan ere, menekoen miresmena mantenduko du hauen ondasunak mantentzen eta bereganatzen ez dituen bitartean. Hala, zilegitasunez helduko da menekoei beldurra helarazi baina errespetatua (ez gorrotatua) izatera.

### **Printzearen egitura: XXIV-XXV. atalak - Italiako egoera politikoaren azterketa**

Garai historiko hartako (XV. mende bukaerako-XVI. mende hasierako) Italiako egoera politikoaren azterketa egiten du, hainbat egoera historiko eta pertsonaia historikoen adibideez baliatuta.

## THOMAS HOBBS eta “Leviathan”

### **Ohar biografikoak eta testuinguru historikoa (baldintzapenak)**

Abade baten semea, 1588an jaio zen Ingalaterran. Lanbidez tutore, maiz egiten zituen bidaiak kontinentera, bertatik eragina jasoaz. Nobleziaren seme, familia aristokratiko baten semearen tutore izan zen. Hala, Frantzia eta Italiara bidaiatzeko aukera izan zuen, bertako kultura barneratzeko. 20 urte beranduago bigarren ez egin zuen ospa herrialde haietara, eta 2 urte luzez matematika zein geometria landuz (haren beranduagoko metodo zientifiko-matematikoan edukiko du eragina garai honek) aritu zen.

Helduaroan gerraren presentzia nagusitu zen Hobbesen ingurune politiko, ekonomiko, sozial zein erlijiosoan. 1639an Eskozia eta Ingalaterraren arteko gerra piztu zen, erlijioa zela eta. Aintzat hartzeko faktoreak:

- Parlamentuzale eta erregezaleen arteko gerra zibila.
- Pobre eta aberatsen arteko gatazka.
- Eskozia eta Britania Handiaren arteko gerrak.

Haren lan nagusiak hauek izan ziren: Tuzididesen *“Historia de la guerra de Peloponeso”*ren itzulpena, *“Los elementos del derecho, natural y político”* eta *“Leviathan”* (1651).

Hobbesen arabera, gizakiok beldurra gudan daramagula jaiotzen gara. Hala, honek uneoro suposatuko du buruhauste bat bere obran. Hasierako kondizio honi jarraiki, Hobbes uneoro ikuspegi arrazionala mantentzen saiatuko da.

### **METODO ZIENTIFIKOA ETA POLITIKAREN IKASKETA**

Zientzia modernoaren sortzaileetako bat izango da T. Hobbes, **Metodo Aixomatiko Deduktiboa** norbanakoaren abiapuntua eta metodologia izanik. Hizkuntzaren papera guztiz azpimarratuta utziko du Hobbesek, prozedura arrazionalarekin bat eginez. Hobbesen arrazonamendua 4 urrats izango ditu (Kontraktualismoaren adierazlea da)

- 1- Gizakiaren azterketa antropologikoa
- 2- Natura egoeraren kontzepzioa. Gizakia testuinguru natural batean kokatzea.
- 3- Lege Naturalak. Gizakiok naturatik barneratzen ditugun legeak.
- 4- Estatuaren eraikuntza. Leviathan.

Planteamendu hauek liberalismoaren aintzindariak izango dira. Hobbes ez da liberalizat hartuko, baizik eta gero liberalismoa bezala definituko denaren hainbat ezaugarri barneratzen ditu. Soberano baten etengabeko presentzia defendatuz absolutista bezala hartua izango da askotan, nahiz eta indibidualismoa bere lanetan presente egon.

### **Gizakiaren ikuspegia; Zoriontasuna**

Bere ikuspegian hasieratik axioma antropologiko bat planteatuko zaigu, zoriontasunari erreferentzia egiten diona. Axioma honetan, Hobbesek gizakien helburua zoriontasuna dela ezarriko du, etengabeko bilaketa horretan murgilduta egonik. Gizakia (indibidualki hartuta betiere) zoriontasuna eskuratzeko hainbat iturri izango ditu, gizakiaren etengabeko zoriontasuna eraginez. Bizitza orduan etengabeko mugimenduan egongo da.

Lehen esan dugun bezala zoriontasun hura indibiduala izango da, izan ere gizabanakoak indibidualki zoriontasunaren etengo bilaketa hura banaka burutuko du, nolabaiteko autonomia izanik. Baina URRITASUNAREN arazoa antzemango du Hobbesek, izan ere berdintasuneko egoera batean zoriontasunaren urritasunak gizabanakoen arteko konfrontazioa eragingo du. Zoriontasunaren bilaketa:

- URRITASUNA; Hobbesentzat zoriontasuna mugatuta agertuko da. Zoriontasunaren arazo nagusia izango da, izan ere ez dago nahi adina.
- BERDINTASUNA; Greziarren planteamenduei kontra eginez, zoriontasuna bilatzeko orduan gizakia erabat askea da, nahiz eta bizitza esparruetan berdintasun hura ez eman.

Zoriontasunaren bilaketan, berdintasunean ematen dena eta muga zehatzak dituenak, etengabeko LEHIAKETA sortzen du gizartean. Zoriontasuna bilatzerakoan gizabanakoen lehieketa eta gatazka permanentea izango da (urritasunaren ondorio nagusia izanik). Gizartean ematen den indibiduen arteko etengabeko lehiaketa izango da Hobbesek antropologikoki aurreikusiko duena. "Equal Enough" kontzeptua garatuko du Hobbesek zoriontasunaren bilaketan dagoen Berdintasun nahiz Urritasunari erreferentzia egiteko.

### **Natura Egoera eta Lege naturala**

Beharrezkoa ikusten da modu honetan Soberanoaren edo eta Botere Politikoaren presentzia, natura egoeratik aurrera egiteko eta gizakiaren zoriontasuna kudeatzeko. Soberanoaren irudi garrantzitsua (absolutismoarekin bat egiten), natura egoeratik ateratzeko baliogarria izango da, botere politikoa bere baitan egonik. Gatazka egoerak

(Natura egoeran ematen dena), zoriontasunaren urritasunagatik ematen dena, Botere politiko edo Soberano baten presentzia ber,matu behar du.

Gatazka egoera hori ez da soilik konfrontazio armatua bidez eman behar, baizik eta gizabanakoen arteko lehiaketan oinarritzen den egoera da. Natura Egoera denboraren nozio aldetik, etengabeko arriskua eta mehatxua da gizabanakoarentzat, nahiz eta momentuan bake irudia egon. Horrelakoa izango da gizabanakoaren bizitza, izan ere etengabeko arriskua eta gatazkaren presentzia konstantea egongo da, biziezina bihurtuz (sufrimendua, bakardadea, pobrezia, egonkortasun falta...). Orokorrean segurtasun falta izango da natura Egoeraren bizi kondizioa. Hortaz, egoera horretatik ateratzeko beharra izango du norbanakoak, GIZARTE HITZARMENA nahiz SOBERANOA bermatuz eta Egoera Politikoa bideratuz.

Justiziarri dagokionez, esan beharra dago Egoera Naturean ez dagoela ongia eta gaizkiaren arteko bereizketarik, ez baitago Justizia edo eta Etikaren formalizaziorik.

### **Lege naturalak eta Estatua (I)**

T. Hobbesek 19 lege natural garatuko ditu bere kabuz, Natura egoeratik gizakiok barneratzen ditugun legeak nolabait (garrantzitsuenak):

- Gizakiok bakea bilatzeko behar naturala daukagu (SEGURTASUNA).
- Bakea bilatzean;
  - Norbararen prestutasuna eta konbenzimendua bakerako.
  - Norberak bere/besteen buruarekin pertzepzioa.
  - Askatasunari uko egin. Soberanoaren esku.
  - Hitzarmenaren beharra sentitu.
- Gizakiek hitzarmenarekiko lehialtasuna.

Gerra-gatazka da, Hobbesen arabera, egoera naturala. Egora horretan, gizabanakoek ingurugirotik sor daitekeen segurtasun-eza nabaritzen dute, norberarena mantentzeko zailtasunak baititu.

Gatazka-egoera natural hori gainditzeko, Hobbesek norbanakoen arteko gizarte-hitzarmena proposatzen du, eta ondorioz norbanakoen ordezkari eta babesle izango litzateken subiranoaren figura sortuko litzateke, zeinak indar handia lukeen. Izan ere, natura egoeran denak denen beldur diren eta segurtasun-eza difuso bat orokortzen den bitartean, gizarte-hitzarmenak gizaki orok soilik beldur zehatz bat edukitzea suposatzen du: subiranoak aurre egin beharreko mehatxuaren indarra.

Hala, gizakiak bere askatasunari uko egin beharko dio subiranoaren izenean. Subiranoari bakea eta egonkortasuna, gizarte-hitzarmenak eta indarraren erabilerak bermatuko lieke. Hala, aurrerantzean gizabanakoentzat mehatxua zer den eta honi nola aurre egin (indarraren erabileraren garrantzia) subiranoaren gain egongo da. Garrantzitsua da argi uztea Hobbesentzat subiranoa pertsona bakar batek edo pertsona talde murriztu baten biltzarrak ordezkari dezaketela.

Hurrengo bi pasartei jarraiki, Hobbesek natura-egoeran nork bere burua muturreraino defendatzeko duen eskubideari uko egiten dio.

*“Gizakumeak prest eta gogotsu egon behar du, bakea eta nork bere defentsa beharrezko uste duen punturaino lortzarren gauza guztitarako eskubidea ez erabiltzeko”.*

*“(...) eta besteekiko askatasunari buruz, berak besteei utziko liekenez konformatu eta jokatu behar du berak ere”.*

Honako guzti hau arautzen duen 19 lege natural daude Hobbesen ustez. Lehen hirurak dira garrantzitsuenak, eta hirugarrenak gizakiak hitzartutako erabakia derrigorrez errespetatu eta bete behar duela dio.

Planteamendu hau oinarri errealak dituen konstrukto bat da: egoera naturalean garatzeak gizarte-hitzarmenaren beharrezkotasunaz ohartzera daramatza gizabanakoak. Hala, horrek ahalbidetzen du hitzarmena eta subiranoaren agerpena.

Hitzarmenak bi motatakoak izan daitezke: Espresoak eta inferituak (...).

Estatuari dagokionean, gizabanakoen segurtasuna bermatuko duen botere komunaren eraikuntzat hartzen du Hobbesek azken hau, zeinak gizabanakoak euren lanaz jabetzeaz ahalbidetuko lukeen. Ordezkaritzari dagokionean, berau denen arteko batasuna besterik ez da, baina garrantzitsua da ohartzea gizabanakoak direla ordezkariaren (subiranoaren) autore, hitzarmen sozialaren gauzapena haien eskutan baitago.

Soberanoa absolutua da, ezin du botererik elkarbanatu. Menekoentzat egoera miserablea izan daitekeenaren ustearen aurrean, alternatiba bakarra natura-egoera dela oroitu behar da, eta horrek suposa dezakeenarekin mehatxatu. Horregatik, herri-gobernuarekin aldera daitekeen fikzioa da, absolutismoaren izaera darabilen arren. Hemen beste auzi bat irekitzen

da: hitzarmena ostean, noraino aitortzen die Hobbesek gizabanako menekoei partze-hartze politikoa? Ba, Estatua konbentzionala den usteari jarraiki, prozesu horretan parte-hartzaile direnez, gizabanakoak subjektu politiko kontsidera daitezke.

Hitzartu ostean, soberanoak segurtasunaren edo bizitzaren aldeko neurriak ekiditen baditu edo haiek gauatzeko gaitasunik ez duenean, menekoek erresistentzia- edo autodefentsa-eskubidea dute. Hala, soberanoa ginetik kendu, bien bitartean natura-egoeran biziraun (oso denbora-tarte laburra izan daiteke), eta beste bat (ez edonolakoa) baimenduko dute hitzarmenaren bidez.

Margolanaren metafora: Euliek (meneko pasiboek, gizakumeek) hitzarmena gauzatzen dute eta apoari (soberanoari) aurrerantzean segurtasunaren bermatzailea dela esaten. Euliak erabakien kanpo geldituko dira, baina apoak irizpide, baldintza eta eginbehar batzuk bete beharko ditu, segurtasuna bermatu aldera.

Kontuan hartu beharreko hiztegia: CIVITAS (Estatua, haren definizioa) eta "Leviathan" edo "Jainko hilkorra".

Hobbesen planteamenduak gizabanakoek subjektu-politiko gisa jokatzeko duten hiru momenturi erantzuten die:

1. Hitzarmena prozesuan eta subiranoaren eraketan.
2. Subiranoak segurtasunaren aurkako neurriak hartzen dituenean (izan barne zein kanpoko).
3. Subiranoak bakea mantentzeko gaitasunik ez duenean.



## **JHON LOCKE eta haren lanak (1632- 1704)**

### **Biografia**

Wrightonen jaioa, Oxford Unibertsitatean denetarik ikasi zuen: teologia, filosofia, fisika, kimika, eta medikuntza. Shafstebury kondearen zerebitzuean, edonolako zerbitzu diplomatikoak garatu zituen. Whig alderdiaren sortzaileetarikoa izan zen, eta horrenbestez Tory alderdiarekin subiranotasunaren inguruko eztabaidetan egon zen murgilduta. Haren lan nagusiak hurrengoak izan ziren:

1. "Two treatises of Government" (1689): Lehenengoan R. Filmerren aurrean, erregearen subiraotasunak fundamentu dibinorik ez duela defendatzen du.
2. "A Letter Concerning Toleration" (1689): Tolerantzia liberalen ikur gisa pertzibituz denez, horri buruz aritzen da idazki labur honetan.

### **Natura egoera (I)**

Locke, Hobbesen antzera, natura egoeraz aritzen da, modu ezberdinean bada ere. Lockeren arabera, egoera honetan gizabanako guztiak erabat aske eta berdinak dira, eta egoera hau balia dezakete apropos, haien ekintza eta baliabideak kudeatzeko. Hala ere, bi askatasun mota bereizten ditu Lockek:

- Askatasun naturala: Munduan zehar beste inoren autoritateari subordinatua ez egotea.
- Gizarte mailako askatasuna: Borondatez hitzartzen denaz gain (Estatua, adib.), botere legislatzaile bati subordinatua ez egotea.

Lockek dioenez, natura-egoera apurkorra denez, ez dago bermatua, eta horregatik gairitu beharra dago, benetan askatasuna eta eskubideak berma daitezten: hala nola batzuek pribilegio gehiagorekin jaiotzean, magistraturik ez dagoelako edo nor bere burua mantentzeko gaitasunik ez duelako...

Gerora ezarriko dena ulertzeko, aipatu behar da gizabanakoak bi botere dituela natura-egoeran, gerora utzi beharko dituenak egoera politikora irsitan:

1. Bere baliabideak gainontzekoen onurarako eta bere babeserako erabiltzean.
2. Askatasun irrazionala.

### **Zer da propietatea? Nola sortzen da?**

"Cada hombre tiene la propiedad de su propia persona. Nadie fuera de él mismo, tiene derecho alguno sobre ella".

Propietatea nork bere lana egiterakoan, hark sortuagatik, bereganatzeko eksubidea duenean sortzen da. Propietatea bizitza, askatasun eta lurren batasuna da.

Lan balioaren teoria: Ama naturak eskainitako zerbaiti, guk gure lanaren bereizgarria inkorporatzen diogunean, berez denona den hori norberaren propietatean bilakatzen da.

Lockes "Proviso: Gehiegikeriak ekiditeko, gizabanakoek lanaren eta apropiazioaren bidez naikoa eta kalitatezkoa utzi behar duten baldintza. Ez da morala, gobernu bakoitzaren arabera baizik.

### **Gizarte Hitzarmena (Estatuari muga)**

Jhon Locken helburua beraz, Natura Egoeran antzemangarriak diren gabeziak asetzea izango da, propietatearen aurkako erasoak ekiditeko beharrezko segurtasuna bermatuz. Natura egoeran ematen den orden falta eta akratismoa, jabego pribaturako kaltegarria dena, soberano baten irudiarekin (estatuaren sorrera) konponduko da. Hobbesekin alderatuta, J. Locken Estatu muga batzuk izango ditu ordea. Estatuaren mugak bi zentzutan;

- Zentzu Filosofikoan; Gerra erlijiosoaren testuinguruan, gobernuaren Neutraltasuna aldarrikatuko du Lockek, talde edo erlijio zehatz baten alde egin gabe. Gobernuak ez du doktrina filosofiko edo erlijioso bat babestuko eta neutraltasunez jokatzeko beharra dauka. Paradigma ideologiko bat babesterakoan, beste gizarte talde baten kaltea eragingo du. Modu honetan, norbanako bakoitzak bere bizimodua erabakitzeko eta hautatzeko aukera izango du, Estatuaren interbentziorik gabe. Jhon Lockek ANTIPERFEKZIONISMOAREN ideia garatuko du ere, Estatuak perfektioa ideologiko-filosofikoa bilatzerakoan ukatzen dituen beste hainbat eskubide indibidualak salatuz.
- ZENTZU OPERATIBOAN (praktikoa); Estatuaren ekintza beti marko legal baten pean eman behar da, nolabaiteko zuzenbide babesarekin. Modu honetan, Hobbesen soberanoaren arbitrariedadeari konponbidea emango dio. Zuzenbide Estatuaren lehen urratsak izango dira, Estatuaren gehiegikeriari amaiera ematen asmoa izanik.

Estatuaren mugak definitzearekin batera, Jhon Lockek Estatuaren konfigurazioa edo eta eraketa aztertuko du. Berak garaturik proiektuan, Estatuaren boterea banaturik agertuko da, soberanoaren gehiegikeria ekiditeko asmoz;

- 1- Botere Legegilea; Legeak eta Zuzenbide Estatu bermatu)
- 2- Botere Exekutiboa (Gobernuaren irudia)
- 3- Botere Federatiboa (Nazioarteko Harremanak bermatzeko eta burutzeko)

Aurretik aipatutako botere legegilea, gobernuaren boterea mugatzeko eraikiko da, hainbat ordezkarien bidez gauzatua (ezin da edonor ordezkari izan). Ordezkari hauek ezarriko dizkiote gobernuarimuga legalak, legeen independentzia bermatuz (Botere

Exekutiboa eta Legegilea nabariki bereiziz). Baina zer gertatzen da Soberanoaren gehiegikeria presente dagoenean (aurretik aipatutakoa gaindituz)? Jhon Lock IRAULTZA burutzeko eskubide indibiduala onartuko du egoera horretan. Soberano arrazionalak ez badu propietate pribatua behar bezala zaintzen eta norbanakoak bere jabegoa erasotua ikusten badu, soberanoa baliogabetzeko eskubidea izango du. Honako parte hartze politiko indibiduala identifikatuko du horrela Jhon Lockek;

- Hitzarmena bermatzeko sinadura.
- Botere legegilearen konfigurazioa.
- soberanoaren aurkako Iraultza prozesua.

## **Jean Jaques Rousseau**

### **Bibliografia**

Ginebran jaioa (Suiza), bertako ingurune politiko-sozialaren eragina jaso. Sistema Politikoarekin harremanak izango ditu.

### **Legitimazioa erdigunea**

Maila Teorikoan, botere legitimoa ezartzen saiatuko da Rousseau, sistema politikoaren klabe nagusia hura izanik. Zuzeneko demokraziaren defendatzaile bezala agertuko da beraz, botere politiko legitimoa eraikitzeko helburuarekin.

Bestalde, botere politikoarekiko obedentzia erabateko borondatearen bidez emango da, ez ordea indarraren mehatxuaren bidezkoa. Botere legitimoa gizarte zibilean orokortuko den botere legitimoa izango da, obedentzia norbanakoaren borondatez onartuz.

### **Nahimen Orokorra**

Nahimen orokorra, Herriaren Nahia bezala ulertuko da (Herriaren nondik norakoa definitu gabe). Herria asanblada batean islatuko du Rousseauk, bere nahia botere politikoaren erdigunea izanik eta honekiko ekintza politikoa bideratuz.

Gizabanakoaren papera herriaren kontzeptuan murgilduko da, Nahimen orokorra idibiduo bakoitzaren interes pertsonalen gainean jarritz. Ez dago soberanoaren irudirik, ez baitago botere politikoaren transmisiorik. Herriaren interesa izango da erdigune politikoa, kontraktualismoarekin ezberdinduz.

### **Ezberdintasun Ekonomikoen auzia**

Jean Jackes Rousseau ezberdintasun ekonomiko nahiz politikoen aurka agertzen da, berdintasunaren aldeko aldarria eginez. Beraentzat berdintasuna ez da soilik maila materialean eman behar, baizik eta botere harremanetan ere berdintasuna bermatzeko beharra dago. Ekonomiari dagokionez, berdintasun erlatiboa aldarrikatuko du, berarentzat ez garela berdinak argudiatuz. Pobrezia eta aberastazuna mugatzen saiatuko da, norbanakoaren salerosketa ekiditzen.

Botere Berdintasunari dagokionez, bilentzia eta zuzenbide estatuaren bidez bermatu behar den funtsezko zerbait da.

## Subiranotasunaren ezaugarriak: Legea

Subiranotasuna alienaezinezkoa edota ordezkazina da. *“Ordezkari politikorik ez, komisarioak bai”*. Hala, Legea nahimen orokorraren adierazpena besterik ez da, herriak adostu eta ebatzitakoa. Hots, Legea zuzena da eta subiranotasuna herriarengan kokatu behar da. Eztatidaren papera hurrengoa da:

Herri asanbladetan iritzi-bateraketak borondate orokorren gailentasunera darama, baina ezadostasunetan oinarritutako eztabaidek interes partikularren eta Estatuaren gainbehera dakar. *“Partikularra desados egotekotan, libre izatera egongo da behartuta”*. Zuzeneko demokraziako asanbladari eztabaida doakio. Eztatidak gehiegi luzatzen badira, norberaren (norbaiten) interes partikularrak agertuko eta gailenduko direnaren seinale txar izango da.

Gobernua, hortaz, nahimen orokorraren organo betearazlea edo komisarioa da, zeina mugatuta dagoen asanbladako deliberazioetatik adostutako guztiagatik.

## Rousseau eta eredu-parte-hartzailearen defentsa

Rousseauk, bere planteamendu politikoan, eredu babesle bat proposatzen du gizabanakoarentzat, Estatuaren gehiegikerien aurrean (Haren autonomia deuseztatzeko dagoen arriskuaren aurrean). Baina haratago joanda (aurreko autoreak aintzat hartuta), esan daiteke asanbladen proposamenak gizabanakoentzat eredu hezitzaile (politikoa) bat suposatzen duela ere.

- **Eredu babeslea:** Botere politikotik babestu beharra dago, honen eta gizabanakoaren artean mesfidantza bat badagoelako. Jarraian dagoen eredu parte hartzaileak horri aurre egiteko baldintzak eskaintzen ditu.
- **Eredu hezitzailea:** Hitzarmenaren bidez egoera zibilera iristean, gizabanakoak eraldaketa bat biziko du, eta moralitate bat eskuratu ahalko du. Horrek, gainontzeko herritarrekin batzerakoan, berezko sena arrazoiaren menpe geratu araziko du, baita berau kontsultatzen ikasiko ere.

## **Frantziar Iraultza**

Amerikar aitzindariak:

- AEBko Independentzia Adierazpenaren (1776) sustatzaileak, T. Jefferson etab. Ikus *"Independentzia Adierazpena"* E-gelan.

Britainiarrek AEBko kolonoei zergak kobratzen zizkieten, baina azken hauek ez zuten estatu-ordezkaritza politikorik. Hala, hauek iraultzarako eskubidea babesten zuten, alde batek haren egin beharra errespetatzen ez bazuen eta aurretiko hitzarmena apurtze bazuen.

- 1789ko ideiak ere Seneca Fallsen adierazpenean (1848) plasmaturik ikusi daitezke, mugimendu feministaren aitzindarietako bat izan zena. Ikus *"Declaración de Seneca Falls"* E-gelan.

Honek guztiak, Ilustrazioarekin batera, Kantek aurreikusitako heldugabetasun orokortuaren (zentzu kantiarrean) egoera gainditzeko baldintza jarri zituen. Heldugabetasuna, norbera beste inoren laguntza gabe, bre arrazoimenaz baliatu ez eta egoera ebatzi ezin izatean ematen da (KANT). Hargatik, Ilustrazio garaiko Frantziar Iraultzako hainbat garaipen:

- Demokrazia eta sufragio unibertsala.
  - Jaiotzaren araberrako pribilegiotan oinarritutako gizarte egiturarekin amaitu izana.
  - Estatu laikoa: Eliza-Estatua arteko banaketa.
  - Ondare publikoa eta botere banaketa.
  - Gazabanakoen arteko lege berdintasuna.
  - Herria defendatzeko, zergak kobratzeko garaian berdintasuna.
  - Konkripzioa: Soldaduska gizonezko guztiek egin beharra.
  - ...
- Idazki esanguratsuak:
- Sieyés: "Zer da Hirugarren Estatua?"
  - Gizonaren eta Herritarren Eskubideen Adierazpena" (1789)

Sieyés garaiko elizgizon pribilejiatua izan zen. Hark Estatu Orokorraren ordezkaritzaren dimentsioak kalkulatu zituen (non Estatu Orokor bakoitzak boza bana zuen legeak aprobaterako garaian), eta Hirugarrenak beste biak 100 aina biztanle ordezkatzen zituela baieztatu. Sieyés berak esan zuen Hirugarren Estatua (nekazari zein eskulangile txiroenak ordezkatzen zituena) kualitatiboki residuala zela, baina haren aldeko apustua egin zuen. Garai hartan, Hirugarren Estatuko kideek ez zuten goi-karguetarako sarbiderik (administrazioa edota ejertzitza, esaterako), eta haien menpe zeuden aberastasuna ekoizteko zein aurrerapen soziala bermatzeko lan marjinal guztiak. Hala, Hirugarren Estatu hau ez zen Frantziar Iraultzaren gidari soziala izango, eta kontserbadoreak ere kaltetuta

aterako ziren. Izan ere, Erregimen Zaharraren sinboloa zen monarkia absolutua ez zen 1789rik aurrera funtzionala izaten jarraituko.

## EDUARD BURKE (BH)- (1729-1797), FRANTZIAR IRAULTZAREN KONTRAKO ERREAKZIOA:

- Burke, *"Reflections on the Revolution in France"*, 1790. Egitura:
  - 1) Revolution society delakoari kritika.
  - 2) Ingalaterrako kultura politikoaren goraiapena.
  - 3) Frantziako egoera berriaren salaketa.
- Ingalaterran F.I ren aldeko ematea (ilustratuak) → Revolution Society. → Burkek horri kritika.
- Beldur da iraultza honen eragina Europara zabaltzea → 2 eta 3. puntuan → bat ezeztatu bestea goraiatzeko.

### **HISTORIA ETA TRADIZIOA:**

- "Iraganaren profetak" → Honela deitu kontserbadoreei.
- KONTSERBADOREAK → Nora joan nahi dugun jakiteko, nondik gatozen ikusi. → *"Quienes nunca miran a sus antepasados nunca podran preever el porvenir."*
- Ingalaterran herriak badaki herentzia horren mantenimendurako funtzionala da baina baztertu gabe hobekuntzaren printzipioa. (Burke)
- Historian zehar, ezagutzan, praktikak metatu egin dira, iraultzailean prest agertu horri buelta emateko baina horren aurrean kontserbadoreek metatutako esperientzia horiek salba daitezkeela uste dute. → HISTORIA ETA TRADIZIOAREN ALDARRIKAPENA.
- Kontserbadoreek aldaketa soziala onartzen dute, onartzen ez dutena da bat bateko gauzak aldatzeko nahi hori. → ALDAKETA GRADUALA ETA NEURRIZ (+esperientziak gidatua).
- Frantziar sistemaren erreforma beharrezkoa baina ez etengabeko berrikuntza.
- Boluntarismo konstituziogilea= espirtu berritzaileen isla. → Horrekin kontrajarria da "presuripzioa".
- Historiarekin lotuta dago.
- Presuripzioa tradizioan oinarrituta:
  - + Begi bat iraganean
  - + Etorkizunari oinarrituta bai.
- Zerbait ona bada iraganetik dator.
- NATURAL ORDER OF THINGS → Kontserbadorea, Arisototeles eta Milekin lotura.
- Orden natural horren arabera betidanik agintean egon direnean, jarraitu behar dute.
- Orden naturala iraultzan oinarriak ez direla solidoak esan nahi du.
- ORDEN NATURALAREKIN LOTUTA → KANTITATE ETA KALITATEAREN ARTEKO TIRABIRAK → Kontserbadoreak elitistak dira.
  - + 110.000 → nobleak.



- + 81.400 → Elizgizonak.
- + Hauek gutxigorabehera = 200.000
- Kontserbadoreek kalitateari garrantzia → Iraultzaileek kantitateari.

**ALDERDI POLITIKOAREN DEFINIZIOA:**

- Alderdi politiko bat funtsean:
  - + gizon taldea
  - + adostasuna
  - + interes nazionala
  - + esfortzu bateratuak.
  - + printzipio batzuk

**BURKE: DISCURSO DE LOS ELECTORES DE BRISTOL.**

- HITZ GAKOAK KONTSERBADOREENTZAT → TRADIZIOA ETA HISTORIA.
- PASARTEAREN IDEIA: Nazioan ordezkatzeko du ordezkariak Rousseau agindu inperatiboa defendatzen zuen. → Burkek aldiz, agindu ordezkatzailerik defendatuko du.

<b>ROUSSEAU</b>	<b>VS</b>	<b>BURKE</b>
Komisarioa, agindu inperatiboa.		Ordezkaria. Nazio osoaren interesen defentsa eta ez haien botoemaileena soilik. Klase alderdiak ez. Iritzi askatasuna herri osoaren defentsarako. Agindu ordezkatzailerik.

## **Jhon Stuart Mill**

### **Bibliografia**

Ingleterran jaioa, kultura angloasoiaren eragin nabariarekin. Bere aitaren eragina jasoko du (filosofo utilitarista), hezkuntzaren bidez transmititua.

### **Gobernu ordezkatzalea**

Jhon Stuart Mill ez da sufragio unibertsalaren alde egongo, gizabanakoaren parte hartze politikoa mugatuko du (muga hura berdintasunez ezarriko du).

Gobernu formaren arira, berarentzat gobernu giforma oso anitza behar da benetan eraginkorra eta justua izateko. Zuzeneko demokraziaren arazo fisikoa kontutan hartuz (ez dago leku fisikorik benetan zuzeneko demokraziaren asanblearismoa gauzatzeko), gobernu ordezkatzalearen aldeko apostua egingo du. Ordezkaritza oso anitza izango da, benetan Nazio osoaren interesak behar bezala kontutan hartzeko. Botere legegilea konfiguratzeko orduan, gizataldeen ezaugarri naturalak (arrazak, generoa, hizkuntza...) alde batera utziko ditu, aniztasun handiko botere legegilea sortuz.

Baina mundu guztiaren gaitasun politikoa ukatuko du J. S. Mill-ek, garaiko ezjakintasun politikoa kontutan hartuz. Filosofo honentzat, benetako baldintza heziketa eta hezkuntza maila izango da politikan parte hartzeko. Modu honetan, soilik irakurtzen eta idazten jakingo duten horiek, gai izango dira politika munduan aritzeko.

### **Askatasunaren auzia**

Emakumeak merezi zuen parekidetasun juridiko eta sozialen tesiez gain, XIX. mendeko politikari britainiar hau askatasunaren inguruan aritu zen. Gizabanako orok bere markoa sortzeko eduki behar duen aukeraz mintzo zen haren obran. Haren esanetan, gizabanakoak bere ikuspuntu propioa garatzeko eskubidea dauka.

Finean, haren ustez iritzi- zein adierazpen-askatasunak funtsezkoak eta beharrezkoak ziren, aurrebaldintza batzuek baldintzaturiko muga batzuen baitan egiten bazen. Horrek, ordea, ez du dogma erliioso edo absolutuen amaiera per se suposatzen; horretarako eztabaidan murgiltzen diren gizakiek, gaiaren inguruko aurrebaldintzarik gabe jokatu behar baitute.

Iritzi eta adierazpen- askatasuna urratzerakoan (interes pertsonaletik abiatuta, beste edonorren iritzia isilaraziz; oker dagoelakoan edo), gure hutsezintasuna aitortzen dugu. Gainera, norbanakoek duten iritzi okerrearen aintzat hartuta ere iritsiko gara egia osora. Aldi berean, egia osoko baieztapenak gogorki jarri behar dira zalantzan, eztabaidairen aurreiritzi

absolutu ez bilakatzeko. Azkenik, horrek dogma absolutuak sortzea ekarriko du eta eztabaidaren arrazoia eta esperientziaren bidezko oparotasuna galaraziko du.

Eztabaidaren oparotasuna hurrengo bidez helduko da:

- Aurreiritzi guztiez desegin behar da.
- Iritzi guztiek eduki dezakete egiaren zati bat, arrazoiaren edota esperientzia pertsonalaren ikuspuntutik landu diren heinean, zati hori txikiagoa ala handiagoa izanda ere.
- Partaideek interes pertsonala alboratuz, aurretiaz iritzi osatu bat ez dutenengana modu osasuntsu batean iritsiko dira.

## **Adolf Hitler eta Nazionalsozialismoa**

### **Nazionalsozialismoaren ezaugarriak**

Alderdi egitura bat izatetik, nazionalsozialismo doktrina izatera igaro zen 30. hamarkadako Alemanian. Bigarren Mundu Gerra igarota, Carl J. Friedrich eta Z. Brezinskik totalismoaren ezaugarri orokorrenak definitu zituzten, bai Hitler bai Stalinen agintaritzak aztergai edukita:

- Orden berri eta perfektora iristeko asmoan, agintaritza totalitaristek ideologia ofizial bat daukate, eta parametro horietatik irteten denak zigorra edukiko du.
- Demokraziaren aurka, egitura hierarikikoa duen alderdi bakarra egongo da, diktadore guztiahaldun eta orojakile baten mende.
- Kontrol poliziala eta beldurraren erabilera arbitrarioa. Hemen oroit behar Zuzenbide Estatuaren eta honen aurrekariaren (Platon, adib) anulazioa.
- Alderdiak komunikabideen ia erabateko kontrola edukiko du. Honek zentsura zin formakuntza interesatua ekarriko du.
- Biolentzia bitartekoen monopolioa.
- Ekonomiaren planifikazio zentralizatua.

Halaber, Paul Klee artistak, haren “Urbideen Matxinada” margolanaren bidez, kritika egin zien estatu totalitaristei:

- Estatu totalitarioak hainbat kontrol mekanismo erabiltzen ditu (errepresioa, propaganda eta heziketa batik-bat) parametro horietatik irteten dena (ezberdin pentsatzeagatik) neutralizatzeko. Hala, modu artifizial batean gizarte osoa ideologikoki parekatzea lortzen da.
- Estatu hauek doktrina konprentziboa bat () ezartzen dute herritarren alderdi moralerako, bertatik desbideratzen denak errepresioa jasan dezaten.
- Doktrina hauek antidemokratikoak dira, herritarren subiranotasuna liderraren borondateak ordezkatzeko duen heinean.
- Uneoro gailentzen dena lidergoaren printzipioa da. Ikus “El triunfo de la voluntad” dokumentala.

### **Nazionalsozialismoaren helburuak**

Alde batetik, arraza arioaren biziraupenerako borroka (baita honek osatzen duen herriarena ere) bermatu behar da. Hala, bai arrazaren nagusitasuna bermatuko da, baita aberriaren handitasuna eta independentzia ere, Izaki Gorenaren patua betez.

Bestalde, Estatu Alemaniarrak berezko giza-arraza nagusiago bat babesten duenez, honen ezaugarri intelektual zein kulturalen biziraupena bermatzea dute helburu, kanpoko arrazen mehatxuaren aurrean.

Honi lotuta, bizi-eremuaren ideia dago: Alemaniako biztanleriak, proportzioan, lurraldetasun txikia duenez haren eguneroko bizitza garatzeko, guda-politika sustatuz beharrezkoa zaio Alemaniari bizi-eremua zabaltzea eta bestelako lurraldeak konkistatzea.

## **Herri eta gizabanakoen arteko berezko ezberdintasuna**

*naturan oinarritutako hierarkizazioa*

Herrien eta hauen islada ziren arrazen arteko hierarkizazioa egiten zuen bezala, Hitlerrek komunitate nazionala osatzen zuten norbanakoen artean ere bereizketak egiten zituen. Maila ezberdinetan sailkatu zituen gizakiak, arioetatik judutarretaraino.

Ustez, arraza garbi mantendu behar zen eta odol-kutsatzaileak garbitu ezean, hondamendia suposa zezakeen hark arraza arioaren purutasunerako. Herriak ez baitira gerren bidez desagertzen, kontaminatu gabeko odolekoen (arrazaren purutasunaren) erresistentzia-indarraren galeraren bidez baizik.

Hala, gizadia hiru multzotan sailkatu zuen Hitlerrek:

1. Kultur sortaileak: Zientzia, Arte, Hezkuntza... bezalako arloen ekoizpenaz arduratzen direnak.
2. Kultur hondatzaileak: Judutar eta gaixoak. Odolez kutsatutakoak.
3. Kultur eramaileak: Gainontzeko guztiak. Kulturari ez diote ez berezko onurarik ez kalterik egiten.

Ondorio gisara, nazionalsozialismoaren arrazakeria nabarmena aipatu dezakegu. Izan ere, Hitler eta honen jarraitzaileen arabera, arraza odolaren araberrako definizioan datza, edonolako ezaugarri kulturalen aurretik. Bide beretik, hark judutar eta arioen elakrren arteko konpromezua betatzeaz gain, politikari izatera "haien ala gu" gordinak eraman zuela aitortu zuen bere obran. Egia da, esan beharra dagoela hark ez zituela inoiz aipatu genozidioan zeharn giza-talde ezberdinekin naziek erabili zituzten metodo zehatzak.

## **Demokraziarekiko ikuspegia**

Nazionalsozialismoa antiparlamentarista da, legebiltzarkide eta "herriarren ordezkariak" ez baitute bestelako argudioetaz hausnartzeko borondaterik, baizik eta ongizate pertsonal ustel bat elikatzeko daude hor, haien arabera. Masen iritzi eta borondate guztiak asanblada publikoan islatzen dira, baina azken honen eraginkortasun faltaren

aurrean, gehiengoaren borondate zein adostasuna Führerraren figurari onartzen zaio, guztiz ahaltzua eta orojakilea den heinean.

Ikuspuntu honek zilegitasun sozial minimo bat eskura zezan, esanguratsua izan zen Gustave Le Bonen eginkizuna, propaganda eta psikologia soziala arte gisa ikusi zitezten.

### **Emakumearekiko ikuspegia**

Naturan oinarrituta, gizonari familiaren eta herriaren defentsa egotzi zion Izaki Gorenak. Bien bitartean, emakumeari familiaren eta etxearen mantenua egotzi zitzaion. Beraz, bien arteko zeregin bereizi eta eskusibo hauen garapenak (elkarlanaren bidez) ahalbidetuko dio herriari biziraupena eta garapena. Bestalde, emakumeak ere hierarkizatzen dira nazionalsozialismoaren ikuspegitik, baita egunerokotasuneko zeregin politikotatik baztertzen ere.